

Europako Alianza Librea

2004ko Europar Hauteskundeetarako Manifestua.

Europako Aliantza Libreak Estaturik gabeko nazioen, herrien eta eskualdeen eskubideen alde egin du hainbat hamarkadatan. Gure eskubide historikoak lortzeko eta gure herrialdeetako ekonomiak eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko, European ordezkaturik egon behar dugu, European bertan.

Datozen hauteskundeetan, gure herrialdeak European hobeto ordezkaturik egoteko ahaleginak egingo dituzte Europako Aliantza Librea osatzen duten alderdiek. Gure ordezkariak politika aurrerakoiak sustatzeko konpromisoa hartu dute. Gizarte-baldintzak eta bizi-kalitatea hobetzen eta aberastasunaren banaketa zuzenagoa lortzen saiatzen gara. Halaber, herritarren bizi-kalitatea ingurune garbi batean hobetzeko aukera emango duen garapen iraunkorraren printzipioaren alde jokatzen dugu. Gure ideologia bat dator egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat mundu hobearekin. Hala ere, gure herrialdeen konstituzio-egoera dela-eta, ez dugu Europako beste herrialdeek duten ordezkartza-maila eta, ondorioz, atzean geratzeko arriskua dugu European gure etorkizunean eragina duten funtsezko erabakiak hartzen direnean. Egoera hori printzipio demokratikoen aurkakoa da eta, horrexegatik, erreforma bat eskatzen dugu. Gainera, nazio zein eskualde eremuan mugitzen gara eta estaturik gabeko nazioek gobernu maila guztietan ordezkartza egokia izan dezaten lortzeko borrokatzen gara.

Estatu-nazioaren garaia amaitu da, baina horren ordezkari Europako Batasun monolitikoa ere gaitzesten dugu, boterea Estatu kide handien esku uzten baitu. Orain aurrean dugun erronka herri guztiek prozesu politikoan parte-hartze handiagoa izan dezaten lortzea da.

Gure borroka politiko nagusia gure herrien autogobernua eta nortasunen aitortzea lortzea da.

Europako datorren legegintzaldirako funtsezkotzat hartzen ditugun errebindikazioak ondokoak dira:

- Europako erakundeak sinplifikatu eta demokratizatu egin behar dira ganbera biko egitura baten bitartez: Europako Parlamentua (alderdi politikoak osatua) eta Herrien Senatua (Estatuak, Estaturik gabeko nazioak, herriak, eskualdeak eta European beraiei gaiak kudeatzeko heldutasun nahikoa dutelakoan dauden guztiak ordezkaturik dituen ganbera berria). Senatu hori Kontseiluaren ordezkaria izango litzateke eta legeak Europako Parlamentuarekin batera egingo litzuke. Europako Parlamentuak Batzordeko kideak izendatuko litzuke eta “ezespen” prozedurak hasteko eskumena izango luke. Egitura horrek barne zabalkuntzako prozesua erraztuko du autodeterminazioaren bidez. Europako Aliantza Librea gure gobernuak deszentralizatu eta Ministroen Kontseiluan erabateko parte-hartzea izatearen alde dago. Gure herrialdeek, halaber, Auzitegira iristeko aukera izan beharko lukete.
- Konstituzio-aniztasuna. Dauden gobernu-mailek –hala nola Europako Batasunak, Estatuak, Estatu autonomoak, hiriek eta abar– eskumen maila ezberdina izango dute, lankidetzaren maila berarekin eta hierarkia egiturarik gabe. Era horretan, Herrien Konfederazio bat eratuko dute, hau da, gobernatze-sare bat.
- Hizkuntza guztiek eskubidea dute Europa mailan aitortuak izateko, Estatuak hizkuntzen eta besteen arteko ezberdintasun artifizialik gabe. Europako Aliantza Libreak Europako kultur eta hizkuntza aniztasunarekiko errespetua eta Europako hizkuntza guztien berdintasuna lortzeko ahaleginak egingo ditu. Horretarako, eremu urriko hizkuntzei lotutako prestakuntza, garapen eta normalizaziorako tresna juridiko lotesleak eta aurrekontuak ezartzeko lan egingo du Europako Aliantza Libreak.
- Eskualdeak egitura-fondoen kontrola eta kudeaketa beren gain hartuko dute.
- Estatuak mende egongo ez diren eskualdeen arteko eta mugez haraindiko lankidetzaren sareak ezartzeko askatasuna.
- Europako Batasuneko politika guztiek herritarren elkartzasuna, berdintasuna eta bizi-kalitatea izan beharko lukete oinarri. Europako Aliantza Libreak konpromisoa hartu du gizarte-kohezioaren eta ongizatearen gizariek alderdi guztietatik; gainera, beharrezkotzat hartzen du Europako Batasunak gutxienezko gizariek arau batzuk ezartzea.
- Erabateko enplegua eta politika neoliberalak murriztu dituzten langileen eskubideak berreskuratzea.
- Eskubide-berdintasuna eta arraza, genero, erlijio, hizkuntza, adin edo sexu-orientazioagatik diskriminazioaren amaiera.
- Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) erabateko aldatzea. Nekazaritza-produktore handiak Europako Batasunaren aurrekontuaren zatirik handiena bereganatzen ari dira eta, aitzitik, Erkidegoko laguntza

ekonomikoak nekazari txikiei, familiako nekazaritza-ustiapenei eta arrantzaleei eman beharko litzaizkieke landa komunitateen bizitasuna babesteko eta etorkizuna bermatzeko. Nekazaritza iraunkorra eta ustiaketa intentsiboa bideragarriak izan daitezke gaur egun elikagaien kalitatearen inguruko mehatxuei aurre egitea lortzen bada.

- Ingurumena babesteko, “poluitzen duenak ordaindu behar du” printzipioaren alde gaude. Urari dagokionez, ezinbesteko baliabide hori zentzuz erabiltzea eta, aldi berean, fluxu naturala ez aldatzea da bide bakarra. Bada garaia energia nuklearra alde batera uzteko; izan ere, baliabide arriskutsua da eta sortzeko eta banatzeko sistema zentralizatu bati erantzuten dio. Energia-iturri berriztagarrietan inbertitzeak ingurumena hobetzen eta tokiko ekonomiak bultzatzen lagunduko du eta, ondorioz, ekonomia horiek beren baliabideak kontrolatzeko aukera izango dute.
- Europako Batasunerako kanpoko politika komun baten alde gaude. EBko segurtasuna, defentsa eta diplomazia gatazka gehienek arrazoi nagusi diren injustiziarik eta goseari aurre egingo dion gerraren kontrako mundu multipolar bat sustatuko duen erakunde bakar batean barne hartu behar dira.
- Mugen barruan gatazkak sortzen direnean Europako Batasunak bakea bermatzeko bete behar duen zeregina aldarrikatzen dugu.
- Europako Batasunaren kudeaketan irekitasun eta gardentasun handiagoa exijitzen dugu.

Gure Europako ikuspegia elkarrekin lankidetzan aritzen diren herri askok osatutako Europa harmoniatsu batena da. Gure aniztasunaren aberastasuna babestu eta, aldi berean, Europako Batasun zabalago batek eskaintzen dizkigun aukerez baliatu nahi dugu, eta hori lortzeko tresna politikoa erabakiak hartzeko prozesua herritarrengana neurri handiagoan hurbiltzen duen subsidiarotasuna da. Erantzukizunak subiranotasun partekatuko esparru batean era zuzenagoan eta malguagoan bana daitezke exijitzen dugu eta, horretarako, denentzako lekua izango duen elkarrekin konektatutako sistema bat sortzea da bide bakarra. Autodeterminazio printzipioarekiko errespetuan oinarrituta, Europako Batasunaren eta Estatu autonomoen eta erakundeen arteko lankidetzaren harreman eraginkorren alde gaude. Europako herritarrek beren etorkizunari buruz erabakitzeak eta bakean, demokrazian eta gizarte askotariko batean bizitzeko duten eskubidea babestea da gure lehentasuna.

Akordio hau sinatzen dugun alderdiok –ERC, EA, CHA, PSA, AA, CNC eta ICLR– Europako Aliantza Libreak aniztasunaren alde egindako adierazpena izenpetzen dugu.

I – Aniztasunaren Europa (Herri, hizkuntza eta nortasunen kultura anitzeko Europa)

Europako Batasunak eskumen politikoak eta legegileak dituzten lurralde entitateen errealitatea barne hartu behar du bere erakunde esparruan. Estatu bat izateak ez luke irizpide bakarra izan behar Europan ordezkaritza politikoa aitortzeko. Kontraesan hori are nabarmenagoa izango da zabalkuntza prozesuaren testuinguruan; izan ere, hamar Estatu kide berri baino gehiago geratuko dira Europako Batasunari atxikita, eta horietako gehienak herrialde txikiak dira. Europan politikoki izatearen berme bakarra estatu-izaera den heinean, Estaturik gabeko nazioek Europan aitortuak izateko izango duten alternatiba bakarra Europako Batasunaren barruan Estatu independente bihurtzea izango da.

Europako Batasunak “batasuna aniztasunean” aitortu eta praktikan jarri behar du, herri guztien eta, bereziki, hizkuntza bat, historia bat, ezaugarri sozial eta ekonomiko bereizgarriak eta asmo politiko jakin batzuk dituzten nazioen eta eskualdeen errealitatea errespetatuta. Europako politika esparruan oraindik nagusi diren praktika jakobino horiek eta pentsamolde hori gainditu beharko ditu Europako Batasunak.

Estatuko hizkuntza ofizialak ez diren hizkuntzak erabat errespetatzeko, funtsezkoa da Estaturik gabeko nazioen eta eskualdeen hizkuntza aniztasuna neurri handiagoan aitortzea. Horrek, funtsean, Estatu kideek eta nazioek edo barneko eskualdeek ofizialki aitortu dituzten hizkuntzak Europako Batasuneko hizkuntza ofizial gisa onartzea ekarriko luke. Europako Batasunaren barruko politikek, halaber, Estaturik gabeko nazioetako irratik eta telebisten kultur aniztasuna errespetatu beharko dute.

II – Herritarren Europa (demokrazia, gizarte-dimentsioa, eskubideak)

Herritarrek parte hartzeko modu berriak

Parte-hartze demokratikoa indartu behar da. Hori dela-eta, ondokoa proposatzen dugu:

- 1- zuzenean parte hartzeko moduak eta organo legegileetako ordezkarien hautaketa bultzatzea: erreferendumak, batzarrak eta abar.
- 2- herritarren parte-hartzea maila guztietan sustatzea, hauteskunde-garaira mugatu gabe.
- 3- herritarrengan gai publikoekiko interesa piztea lortzen duten hezkuntza sistemak garatzea.
- 4- presio-taldeek jarduerak kontrolpean jartzea.
- 5- komunikabideak eta, bereziki, komunikabide publikoak irekiak direla eta gizartearen izaera anitza islatzen dutela bermatzea.
- 6- parte-hartzearen sustapena lortzen duten hauteskunde-sistemak eta parlamentuen ordezkartza-izaera bultzatzea.
- 7- herritar guztiei Europa mailako eztabaidei buruzko informazioarako zuzeneko sarbidea ematea.
- 8- GKEek, bestelako erakundeek eta gizarte zibilak legeria lantzeko garaian duten garrantzia aitortzea.

Europako gizarte-eredua

Elkartasunean oinarritutako Europako gizarte-eredua indartu behar da: kalitateko erabateko enplegua lan-ingurune seguru eta osasuntsu batean, interes orokorreko zerbitzu unibertsalak eskuragarri izanik. Lisboako eta Goteborgeko irizpideei jarraiki ingurune dinamiko batean kokatutako garapen ekonomiko iraunkorraren, erabateko enpleguaren, gizarte-babesaren eta gizarte-justiziaren arteko oreka eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna lortzea da eredu horren xedea.

Gizarte-egonkortasuneko Itun baten alde

Kalitateko erabateko enplegua lortzeko eta gizarte-babesaren eta gizarte segurtasunaren maila handia bermatzeko, helburu lotesle batzuk itundu behar dira Erkidego mailan, kuantitatiboki zein kualitatiboki. Irtenbide bat erabateko enplegua, gizarte-ongizatea, gizarte-berdintasuna eta iraunkortasun ekologikoa lortzeko gizarte-egonkortasuneko Ituna izan liteke (“koordinazio metodoarekin” konbinatuta jarriko litzateke martxan). Gizarte egonkortasuneko Itun horren barruan, ongizatearen eta gizarte zerbitzuen kostuak BPGan islatzeko garaian herrialde bakoitzarentzat orientagarria izango den abiapuntu bat ezartzeko asmoarekin bat dator gure Taldea.

Mundu baketsu baten alde

Funtsezkoa da planteamendu jakin batzuk inposatzeko egiten den eraso edo indarkeria mota oro gaitzestea. Indarkeriarik gabeko baliabideak eta elkarriketa defendatzen ditugu gatazkak konpontzeko.

Gatazkei aurrea hartzeko eta bake iraunkorra lortzeko, ezinbestekoa da munduko merkataritzan berdintasun-oreka handiagoa eta garapen iraunkorra lortzea. Munduko Merkataritza Antolakundearen negoziatioetan, garapen bidean dauden herrialdeen interesen alde egin beharko luke Europako Batasunak.

Arma-trafikoan eta baliabide naturalen ustiaketan diharduten enpresa multinazionalentzat Erkidego mailako jarrera-kode lotesle bat ezartzea funtsezko baldintza izango litzateke mundu justuago eta baketsuagoa lortzeko.

Pobreziaren kontrako borroka lehentasun handiena izan beharko luke milurteko honen lehen urteetan.

III – Europako Konstituzioaren alde

Herrien eta nazioen Europa baterantz

Orain arte Europako Batasunaren ia oinarri bakarra izan diren Estatu kideek errezelo handiak dituzte subiranotasuna europar erakunde politiko bati lagatzeko. Gainera, Estatu kideen tamainan eta biztanle-kopuruan dauden ezberdintasunek zailtasunak dakartzate elkarren artean koordinatzeko.

Europako Aliantza Librea – Europako Herrien Alderdi Demokratikoa izeneko Taldearen ustez Europako batasun-prozesua desegokia bada ere, indarrean dauden erakundeen esparruan lan egiteko, bertan eragiteko eta parte hartzeko eta eskaintzen dizkiguten aukerez baliatzeko borondatea duela adierazi du, guztia Europako Batasunak norabide egokian aurrera egin dezan.

Gure Taldearen lehentasunezko helburua herri guztiei Europako integrazioan zeregin erabakigarria izango dutela bermatzea eta erakundearen defizit demokratikoaren kontra jardutea da. Horretarako, ondoko puntuetan oinarrituko gara:

- nazioek eta barneko eskualdeek erakundearen baitan bete beharreko zeregina sustatzea eta zabaltzea; horretarako, Ministroen Kontseiluan ordezkatura egotea eskatuko dugu.
- subsidiariotasunaren printzipioa bere osotasunean aplikatzea, erakunde txiki batek egin dezakeena ez baitu zertan egin goragoko maila bateko beste erakunde batek.
- Europako Batasuna osatzen duten herrialdeen artean lurralde arteko eta mugaz gaindiko lankidetzak ahal den neurrian erraztea; izan ere, herrialde horien mugek jatorri historikoa dute eta ez dituzte beti islatzen herrialdeak batzen dituzten lotura naturalak, ekonomikoak edo kultur arlokoak.
- Erkidegoaren lurralde osoan Europako Parlamenturako hauteskunde-sistema bakar baterantz jotzea, proportzionaltasunaren printzipioari jarraiki eta herrien eta nazioen zuzeneko ordezkartzearekin.

Europako Konstituzioaren alde

Europako Aliantza Librea bat dator Europako Batasunerako Konstituzio baten asmoarekin. Izan ere, funtsezkotzat hartzen du herritarrek Europako Batasunaren baitan autonomia demokratiko eta garden bat izan dezaten, betiere giza eskubideak –autodeterminazio eskubidea barne– eta erabakiak herritarrengandik ahalik eta hurbilen hartzen direla bermatzen duen subsidiariotasunaren printzipioa errespetatuta.

Ikuspuntu demokratiko batetik, Europako Konbentzioak proposatutako konstituzio-proiektua aurrerapen garrantzitsua da Europako Batasuna eta bere eskumenak definitzen dituzten Itunen nahaste-borrastean, eta Gure Taldeak poz handia hartu du, bereziki, Oinarritzako Eskubideen Gutuna Konstituzioan barne hartu izanagatik. Gobernu Arteko Konferentzian ordea, ez zen Konbentzioaren testua onartzea lortu eta porrot hori atzerakada handia izan zen Batasun zentzuzkoago baterako bidean.

Hala ere, konstituzio-proiektuak akats saihestezinak ditu. Estaturik gabeko nazioek oso aukera gutxi izan zituzten parte hartzeko, bai eta dagokien Estatu kideen barruan autonomia-maila handi samarra dutenek ere.

IV – Gure seme-alabentzako planeta seguruagoa

Iraunkortasuna gure Taldearen helburuen muina da, kultur eta hizkuntz arloan zein ingurumen-arloan. Europa iraunkor batean komunitate iraunkorrak garatu nahi ditugu.

Gure Taldeak parte-hartze aktiboa izan du ingurumen-politikaren hainbat eremutan, hala nola GEORik (genetikoki eraldatutako organismoak) gabeko eskualde eta zonen aldeko kanpainan edo GEOak etiketatzeko eta identifikatzeko legeria zorrotzago baten alde. Europako herritarren ia %90ek arbuiatzen dituzte GEOak. Ondorioz, elikadura-osasunaren arloko gaia ez ezik, zer jaten dugun erabakitzeko eskubide demokratikoarekin eta pertsonen eskubideak etekin ekonomikoaren gainetik jartzearekin zerikusia duen gaia ere bada. Nekazaritza iraunkorraren alde gaude eta gure nekazariak bertako merkatuak produkturik onenekin hornitu ahal izan ditzaten nahi dugu. Defendatzen dugun

garapen iraunkorrari esker, egungo biztanleek beren beharrei erantzun ahal izango diete etorkizuneko belaunaldiei gauza bera egiteko aukera kendu gabe.

Aldaketa klimatikoaren kontrako jarduna Europaren lidergoaren adibide zehatz bihurtu da. Energia eta garraioaren arloko Europako etorkizuneko politiketan izan ditzakeen inplikazioak edozein izanik ere, berotze globalaren kontrako kanpaina garrantzi politiko handikoa da. Adibidez, AEBek erregai fosilekiko mendetasun handia dute eta, horrexegatik, energia-baliabideen gaineko kontrola –petrolio eremuena bereziki– funtsezko alderdia izan da AEBek Iraken egindako eraso militarrean. Europa lehena da oraindik Kiotoko Protokoloaren aplikazioan, AEBen parte-hartzerik gabe (CO2 gehien igortzen dutenak izanik), herrialde horrek ez baitzuen Protokoloa sinatu.

Energia nuklearrari dagokionez (Euratom), Europako Aliantza Librean jarrera antinuklear garbia hartu du. Europan energia nuklearraren erabilera pixkanaka amaitzea nahi dugu. Energiaren aurrezpena, energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa dira Europako gizartearen etorkizuna.

1.200 milioi pertsona baino gehiago egunean 1€ baino gutxiagorekin bizi direla kontuan hartuta, Nazio Batuen Milurteko zortzi Helburuak lortzearen eta Johannesburgeko konpromisoak betetzearen alde gaude. Bakea eta justizia lortzeko, ezinbestekoa da pobrezia eta goseari aurre egitea, denek oinarritzko irakaskuntza jasotzeko aukera izatea, emakumeen eskubideak aitortzea eta denek asistentzia sanitarioa izatea.

Espainiar Estatuaren barruan, ondoko errebindikazioak egin behar dira ERC, EA, CHA, PSA, AA, CNC eta ICLR alderdi politikoen ustez:

1. Hauteskunde Legea aldatzea Europako hauteskundeetarako hauteskunde barruti bakarra desager dadin eta Estatu osatzen duten nazioekin etorriko diren barrutiak ezar daitezzen.

2. Autonomia Erkidegoek, beren eskumen eskusiboen eremuan, Europako Batasuneko Ministroen Kontseiluan parte hartzea.

3. Espainiako gobernuari nazioen Autonomia Estatutuetan jasotako edo babestutako hizkuntza guztien Europa mailako aitortpen ofiziala eska dezan erreklamatzeko.

4. Autonomia Erkidegoei beren eskumenak defendatzeko Europako Batasuneko Auzitegira zuzenean jotzeko aukera aitortzea.

5. Konbentzioak onartutako Europako Konstituzioaren proiektuko Subsidiarotasun eta Proporzionaltasun Protokoloa beteko duen lege bat lantzeko beharra erreklamatzeko. Lege horrek Europako Batasuneko arauen lantzean eta kontrolean parte hartzeko aukera emango die Autonomia Erkidegoetako parlamentuei (beren eskumenen eremuan).

6. Europako Erkidegoko gaien arloan Euskal Autonomia Erkidegoak eta Kataluniako Autonomia Erkidegoak Estatuko Gobernuarekin eratu dituzten alde biko batzordeak, etorkizunean sor daitezkeenak eta Europako Erkidegoko gaietako buruzko Konferentzia sektoriala ohiko bide gisa sustatzea.

7. Egitura Fondon erreformaren esparruan, baliabide garrantzitsuak banatzeko beste irizpide batzuk barne har daitezkeen proposatzea (hala nola dentsitate demografiko txikia, industria-birmoldatzeak, biztanleen zahartzea, orografia menditsua edo uharte-izaera), Europako Batasuneko Estatu kideen barruan lurralde-oreka lortzen lagun dezaten.

8. Uraren Kultura Berriaren printzipioak garatzea (eraginkortasuna, iraunkortasuna, elkarriketa...) eta politika hidrologiko zaharra baztertzea (ura arroetatik eta urtegi handietatik eramatean oinarritua eta ingurumenean, ekonomian eta gizartearen oso eragin handia duena).